

berbarotarra

BER
BAR
RO

elkartea

BERBAROREN BATZAR NAGUSIA

Urtean behin egiten dugun Batzar Nagusia maiatzaren 18an egin dugu aurten. Berbaro Elkartearen 13. Batzar Nagusia izan da. Mahaian azalpenak ematen 5 lagun: Esti Zurikarai presidentea, Gorka Barruetabeña arduradun orokorra, Idurre Maortua diruzaina, Zurine Etxanobe gazte arloko teknikaria eta Fernan Ruiz udaleko euskara teknikaria. Mahaiaren bestaldean 25 bazkide zoli, azalpenak entzun eta galderak egiten.

Batzarrean esandako guztiak ezin dira Boletin honetan transkribatu jakina (horretarako batzarreko akta jasoko duzue hil honen bukaeran), baina garrantzitsuenak jarraian azalduko ditugu:

Kultur arloan

Berbarok antolatutako 39 kultur ekitaldietan 3000 lagunek parte hartu du. San Agustineko gestioa hartu genuen iaz Gerediaga eta Kriskitinekin batera, kulturegintzan urteetan hartutako esperientziarekin kultur programazioa aberasteko asmoarekin eta era berean aurrerantzean garrantzitsua izango den elkarlanerako bideak zabalduz.

Haur eta gazteen arloak

Antolatutako ekitaldietan 3200 hurreratu dira (Haur Literatur Aretoa, Udalekuak eta Udaleko Hiri kanpamenduak). H.L.A. durangaldeko ikastetxe guztiei zuzendu zaie.



Batzar orokorra maiatzaren 18an egin zan

Anboto sortu

Durangalderako euskarazko komunikabideen plan estrategikoa egin zen eta ondorioz eraginkorragoa eta herritar gehiagok hartzeko moduko idatzizko produktua sortzea erabaki genuen. Merinaldeko euskara taldeekin batu ginen horretarako. 8000 harpidedun egin dira, gure helbururua 10.000 lortzea da. Kalitate aldetik irabaziz herrian sinesgarritasunean ere irabazi dugula uste dugu. Aurrerantzean, interneten ere eskuragarri izango dugu.

Udaleko euskara zerbitzua

Orain arte eginiko lanak ere ondorio baikorrak izan dituela ikusi dugu. Komertzioekin sinatutako hitzarmena handitu egin genuen, elkarrean ere egiteko eta arrakasta handiarekin gainera. Aurten lehiaketa publikoa berriz ere geuk irabazi dugu.

Elkartearen norabidea


Hausnarketaren barri ere eman zen. Azkeneko urteetan proiektu handiak bultzatzen ibili gara, eta

ondorioz bazkideak albo batera utzita izan ditugula uste dugu. Beraz 2002ko helburuetan bazkideentzako egitasmoak antolatzea lehentasunezko gaia izango da.

Antzokia

Beste lehentasunezko kontu bat. Ia lau urte dira proiektu hau lantzen hasi ginenetik, ilusioa, indarrak eta dirua joan zaizkigu denbora horretan, baina hala eta guztiz ere uste dugu kultur gune bizia eta autoaskia sortzea behar beharrezkoa dela durangarrentzako eta elkartearentzako. Izan ere, Batzar Nagusian bazkideek egindako galdera gehienak gai honen bueltakoak izan ziren. Batzarrari amaiera on bat eman genion txokoan, Esti, Josefina, Maite eta Amaiak prestatutako luntx gozoa jan genuen, Berbaroren XIII. urteurrena ospatu eta goizeko eztabaidei umorearekin amaiera emanaz.

Txokoa



Txokoaren funtzionamendu eskasarekin kezkatuta ibili gara aspaldian. Ikaragarritzko inbertsioa egin eta bertan behera utzita eduki dugu eta. Arazo horri konponbidea emateko, bazkide talde bat batu eta urte hasie-

onartu eta beste hainbat neurri hartu ziren bertan. Aldaketarik inportanteenak izan ziren:

- Kuota jartzea, egin beharreko inbertsioei aurre egiteko (3 euro hilean)

ratik ekin dio falta zirenak ekarri, txarto zeudenak konpondu eta funtzionamendu logiko bat ezarri guran.

Apirilaren 22rako deitu zuten txokoko bazkideen batzarra, eta lan talde horrek proposatu ta koa k


• Txokoko Batzordea sortzea. Horretarako zortezok aukeratutako bazkideen zerrenda bat presatatu zen. Aurtengoa: Esti Zurikarai, Josefina Zugaza-Artaza, Jon Kepa Goienetxea, Gorka Barruetabeña eta Ugaizt Balanzategi izango dira.

• Arauak benetan arau izateko, zigorren atala idaztea erabaki zen.


• Kuotatik jasotako diruarekin zeintzuk inbertsio egingo diren erabaki zen (aurten leihoak adibidez)

Lan honen ondorioz, hemendik aurrera txokoak beste txoko guztien antzera funtzionatuko du: bazkideek erabili eta bazkideek arduratu. Zorionak benetan urte hasieratik lanean ibili zaretenoi.

Ekitaldiak nonahi !!



Txuma Murugarrenen kontzertua Berbaro tabernan



Berbaroren Batzar Nagusiaren ondorengo luntxa dastatzen.




Maiatzaren 11ko giza katearen partaideen irudia.



Herri Urratsera ere joan ginen.



T.T.L. Tren emanaldia.



Sukaldaritza Begetarianoko ikastaroaren azken eguna.

Uda Topera 2002

Durangoko Udalaren Mikeldi GEKUIK, "UDA TOPERA 2002" udako kanpaina suspertzeko eta garatzeko, Durangoko astialdiko taldeentzat proiektu lehiaketa antolatu du. Guezan ba! gazte taldea, lehiaketara aurkeztu da eta hirugarren urtez erreskadan irabazlea izan da.

Gure aldetik azken bi urtetan Uda Topera kudeatzea esperientzia ona eta aberasgarria izan da, eta horregatik, aurtengo "Uda Topera 2002" kanpaina aurrera eramateko prest agertu gara. Proiektu honetan parte hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu, hizkuntza normalkuntzan aisialdiak duen garrantziagatik.

Aisialdiko ekintzak hizkuntza erabileran baliabide ezin hobea dira eta begirale taldearen lana eta beraien arteko giroa ere, euskaraz egingo dela ziurtatu egin nahi dugu.

Herri mailan antolatzen diren udaleku irekiak geroz eta arrakasta handiagoa dute eta aukera ezin hobea da, udaldian herrian geratzen diren ume eta gazteentzat.

"Uda Topera 2002" kanpainarako ekintza sorta eta interesgune bereziak biltzen ahalegindu gara. Adin ezberdinak kontutan izanda udako esperientzia erakargarria izatea beharrezkoa da. Aur-

ten ere, Durangoko haur eta gazteek, udan euskaraz gozatzeko aukera izango dute.

"Uda Topera 2002" kanpainan, 3 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteentzat udaleku ezberdinak egongo dira:

TXIKI-TXOKO

3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendua. Burutuko diren ekintzak: ipuinak, jolasak, irteerak, igerilekua, adierazpen tailerrak, eskulanak, jaialdiak, e.a.

HIRI-KANPAMENDUA

6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua. Burutuko diren ekintzak: Irteerak, eskulanak, jolas erraldoiak, txangoak, igeritokia, antzerkiak, jaialdiak, e.a.

KIROLETAN

11 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua. Burutuko diren ekintzak: Irteerak, kirol ezberdinak, kanoak, arku jaurtiketa, jaialdiak, vi-vac, e.a.

ONGI ETORRI

Uda Durangon igarotzera datozen atzerriar haurrei zuzendua dago (saharuiarrak, errusiarrak, e.a.). Programa honetako haurrak, beste hurrekin

batera egongo dira, baina udalekura egokitzeko beste hurrekin baino integrazio behar gehiago dituztenez, laguntza izango dute. Hain zuzen ere, hizkuntzan, ohi-turretan, e.a.

Guezan ba! badabil "Uda Topera 2002" ilusio handiz prestatzen. Dagoeneko, lanean dabilta udalekua aurrera eramango duten 50 begirale eta koordinatzaileak.

Beraz, udaleku hauetan parte hartuko duten 500 umeek ondo pasatzea eta disfrutatzea espero dugu!

Mankomunitateko Euskera Zerbitzua laster martxan

Merinaldeko Mankomunitateak Euskera Zerbitzua martxan ipinteko asmoa izan dauela ez da gai barria. Geurean ez behintzat; izan be, bada urte luzea erabakia hartu ebenetik. Erabaki sendoa eukien Euskera Zerbitzua abian jarteko, baina zenbait duda be bai, eta horreek argitzeko Berbarori deitu eutsien aholkua eskatzeko. Hainbat batzar egin genduzan Astolako etxean zerbitzuaren gorabeheren ganean. Handik gitxira, euskerearen normalizazio lanak egiteko lehiaketa publiko atara eban Mankomunitateak. Proiektua prestatu eban Berbarok. Merinaldeko herrietako egoera kontuan hartu eta herri bakoitzeko errealitatea biltzen dauen eranskina bialdu eban txostenagaz batera. Durangoko lehiaketan kompetentzia gogorra izan bagenduan, hemen ez da txikiagoa izan, kalitatez. Siadecok eta Berbarok baino ez eben parte hartu lehiaketan, eta hortik Siadecok urten dau irabazle, euren eskaintzea begitandu jakie-eta egoiena. Tarte txikia atara deuskue, nahikoa barrez.

Halan da be, garrantzitsuena da Mankomunitatean badagoala Euskera Zerbitzua eta, azken batean, Berbaroren erronketako bat lortutzat hartu leitekela. Izan be, lehen esan dogun moduan, gaia kontu zaharra da. Galtzaile sentsazioa be geratu jaku, bati baino gehiagori, baina holakoetan lehiakortasuna alde batera itzi eta lortu dana da benetan neurtu eta baloratu behar doguna.

Amaitzeko, zorionak emon Siadecori eta esan, egin behar dauen bidean Berbarok lagun izango dauela, euskereak ezin dau-eta itxaron. Oraindik ez dakigu noz hasiko dan beharrean teknikaria, baina hasten denerako hemen izango gaitu prest.



Datozenak

- Maiatzaren 30ean, osteguna, 21:00etan BERBARO Tabernan **Ramon Agirre** "Ondo esan beharko" ikuskizuna eskainiko du. Antzerkia, musika, umorea, KULTUR ERROTAREN barruan.
- Maiatzaren 31n, ostirala, **Berto Afari Begetarianoa**, 21:00etan Zingilipurka Elkartearen. Bertsolariak: J.M. Irazu eta Sebastian Lizaso.
- Ekainaren 1etik-30era BERBARO Tabernan **argazki erakusketa**. Oreretako Mikelazulo Elkarteak Senegalen landutako, RIIRU-XOL (bixotz tanpadak) proiektuari buruzko argazkiak ikusgai jarriko ditu.
- Ekainaren 27an, osteguna, 21:00etan **DIRTIES** (Durango) taldearen kontzertua BERBARO Tabernan.
- Uztailaren 1etik-31ra BERBARO Tabernan **argazki erakusketa**. Salvador, Nikaragua eta Guatemalako proiektu ezberdineri buruzko argazkiak, Maier Alberdi durangarraren eskutik.
- Uztailaren 3an, asteazkena, 20:30etan, BERBARO Tabernan, **Diaporama Saioa**: Istanbuldik Teheranera. Jon Arretxeren eskutik.
- Uztailaren 4an, osteguna, 21:00etan BERBARO Tabernan **bertso saioa**.

Larrosa eta Arantza


LARROSA

☺ Lehenengo larrosa Bartolome Ertzilla musika-eskolarentzat. Musika-eskola honetako arduradunek El mestre armer partitura landu, euskaratu, egokitu eta Kurutziaga Ikastolarekin batera Filipo errege gaixoaren antzezlan burutu dute. Txalogarria lana eta hau euskaraz antzeztea. Lan neke-tsua izango zelakoan gaude, baina era berean pozgarria horrelako proiektu bat aurrera eramatea.

☺ Bigarren larrosa bat ematera goaz gaurkoan. Durangoko kaleen izenak agertzen diren karteltxoak aldatu ditu Udaletxeak. Plaka barri hauetan kaleen izenak euskara hutsean agertzen dira. Hau normaltzat jo beharko genuke eta aipatzerik ere ez duela merezi pentsatuko duzue askok, baina Udaletxeak merezi du txalotzea, ea bide horretatik jarraitzeko animatzen dugun bide batez.

ARANTZA

☹ Larrosak banatu ondoren arantzak banatzea dagoligu eta "saria" Durangon argitaratzen diren idatzizko herri komunikabideentzako da. Aldizkari hauetako berriak erdaraz aurkezten zaizkigu. Euskarak oso presentzia eskasa izaten du. Titularren bat, iritzizko artikuluren bat, ..., gauza gutxi, egia esan behar bada. Aldizkari hauen irakurleen gehiengoa euskalduna izanik, ahalegina egin beharko lukete euskarari tratu egokiago bat emanez.



OHARRA

Berbaro Elkartearen egoitza kokatuta dagoen Pinondo Etxeak ordutegi berria estreinatu du. Goizez 10:00etatik 13:00etara, arratsaldez 17:00etatik 21:30ra. Ordutegi horretan sarrerako atea zabalik izango duzue.

